**PROGRAMA**
3223 EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

**ARDURADUNA**
47 EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA

HELBURUA

**EMAKUNDE**

*1.EMAKUNDEREN ZUZENDARITZA KONTSEILUA*

2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOEN PLANGINTZA ETA GARAPENA BULTZATZEA.

3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOAK GARATZEKO KOORDINAZIOA BULTZATZEA.

4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA BULTZATZEA

*5. BOTERE PUBLIKOEKIN ETA BESTE EUSKAL ERAKUNDE BATZUEKIN LANKIDETZA SUSTATZEA.*

6. AUTONOMIA ERKIDEGOETAN, ESTATUAN ETA *NAZIOARTEAN* BERDINTASUNAREKIN ZERIKUSIA DUTEN INSTITUZIO ETA ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA SUSTATZEA ETA GAUZATZEN DIREN PROGRAMEN ETA EKIMENEN JARRAIPENA EGITEA.

7. KOMUNIKABIDEEN ETA PUBLIZITATEAREN ALORREAN BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOAREN APLIKAZIOA SUSTATZEA.

8. EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA ARAUDIAN SAR DADIN SUSTATZEA ETA SEXUAGATIKO BEREIZKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEA.

9. EMAKUMEEN DESBERDINTASUN EGOERARI BURUZKO KOMUNIKAZIOA, INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA.

10. BERDINTASUNAREN ALDE ETA EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKA GIZONAK INPLIKATU DAITEZEN SUSTATZEA.

11. GENEROARI ETA EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA.

12. ENPRESA ETA ERAKUNDE PRIBATUETAN BERDINTASUN POLITIKEN GARAPENA SUSTATZEA.

13. EMAKUMEEN ELKARTEGINTZA SUSTATZEA, EUSKADIKO BIZITZA PUBLIKOAN PARTE-HARTZE HANDIAGOA IZAN DEZATEN.

14. DOKUMENTAZIO ZENTROA

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO DEFENTSA ERAKUNDEA**

1. SEKTORE PRIBATUAN SEXUA DELA ETA SOR DAITEZKEEN BEREIZKERIAK EDO BEREIZKERIA EGOERAK IKERTZEA ETA GOMENDIOAK EMATEA.

2. SEKTORE PRIBATUAN SEXUA DELA ETA SOR DAITEZKEEN BEREIZKERIA EGOERETAN HERRITARREI

***PROGRAMA***
*3223 INSTITUTO VASCO DE LA MUJER*

***RESPONSABLE***
*47 INSTITUTO VASCO DE LA MUJER*
*DIRECTORA DEL INSTITUTO VASCO DE LA MUJER*

*OBJETIVO*

***EMAKUNDE***

*1.CONSEJO DE DIRECCIÓN DE EMAKUNDE*

*2. IMPULSAR LA PLANIFICACIÓN Y EL DESARROLLO DE POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AÚTONOMA DE EUSKADI.*

*3. IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLITICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.*

*4. IMPULSAR EL SEGUIMIENTO Y LA EVALUACIÓN DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.*

*5. PROMOVER LA COOPERACIÓN CON LOS PODERES PÚBLICOS Y OTRAS ENTIDADES VASCAS.*

*6. PROMOVER LA COOPERACIÓN CON OTRAS INSTITUCIONES Y ENTIDADES RELACIONADAS CON LA IGUALDAD EN LAS DIFERENTES COMUNIDADES AUTÓNOMAS, A NIVEL ESTATAL E INTERNACIONAL Y HACER UN SEGUIMIENTO DE LOS PROGRAMAS E INICIATIVAS QUE SE LLEVEN A CABO.*

*7. PROMOVER LA APLICACIÓN DEL PRINCIPIO DE IGUALDAD EN EL ÁMBITO DE LOS MEDIOS Y LA PUBLICIDAD.*

*8. PROMOVER LA INTRODUCCIÓN DEL PRINCIPIO DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES EN LA NORMATIVA Y APOYAR A LAS VICTIMAS DE DISCRIMINACIONES POR RAZÓN DE SEXO.*

*9. COMUNICACIÓN, INFORMACIÓN Y SENSIBILIZACIÓN SOBRE LA SITUACIÓN DE DESIGUALDAD DE LAS MUJERES.*

*10. PROMOVER LA IMPLICACIÓN DE LOS HOMBRES A FAVOR DE LA IGUALDAD Y EN CONTRA DE LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES.*

*11. FORMACIÓN EN GÉNERO E IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES.*

*12. PROMOVER EL DESARROLLO DE POLÍTICAS DE IGUALDAD EN EMPRESAS Y ENTIDADES PRIVADAS.*

*13. FOMENTAR EL ASOCIACIONISMO DE LAS MUJERES PARA UNA MAYOR PARTICIPACIÓN EN LA VIDA PÚBLICA DE EUSKADI.*

*14. CENTRO DE DOCUMENTACIÓN.*

***DEFENSORÍA PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES.***

*1. INVESTIGAR LAS PRESUNTAS SITUACIONES O PRÁCTICAS DE DISCRIMINACIÓN POR RAZÓN DE SEXO EN EL SECTOR PRIVADO Y DIRIGIR RECOMENDACIONES.*

*2. PRESTAR ASESORAMIENTO Y ASISTENCIA A CIUDADANAS Y CIUDADANOS ANTE POSIBLES*

AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA EMATEA.

3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN EREMUAN, BEREIZKERIAREN KONTRAKO ARAUDIA ZENBATERAINO BETETZEN DEN AZTERTU ETA EBALUATZEA.

4. TRATU BERDINTASUNAREN ETA SEXUAGATIKO BEREIZKERIARIK EZAREN OINARRIZKO ESKUBIDEA HEDATZEA: EGOERA, ARAUDIA ETA BABESTEKO BALIABIDEAK.

5. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO DEFENTSA ERAKUNDEA (KOKAPENA, SARBIDEA ETA HELBURUAK) EZAGUTARAZTEA, SEXUAGATIKO BEREIZKERIA EGOERETAN HERRITARRAK DEFENDATZEARI ETA TRATU BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA BETETZEA SUSTATZEARI DAGOKIONEZ.

6. KOORDINAZIO MEKANISMOAK ETA LANKIDETZA HARREMANAK GARATZEA.

7. BEREIZKERIAREN KONTRAKO LEGERIA ETA JURISPRUDENTZIA AZTERTZEA ETA LEGEGINTZA PROPOSAMENAK ETA LEGEAK ERALDATZEKO PROPOSAMENAK EGITEA.

*SITUACIONES DE DISCRIMINACIÓN POR RAZÓN DE SEXO QUE SE PRODUZCAN EN EL SECTOR PRIVADO.*

*3. ANALIZAR Y EVALUAR EL GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LA NORMATIVA ANTIDISCRIMINATORIA EN MATERIA DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES.*

*4. DIVULGAR EL DERECHO FUNDAMENTAL A LA IGUALDAD DE TRATO Y NO DISCRIMINACIÓN POR RAZÓN DE SEXO: LA SITUACIÓN, NORMATIVA Y RECURSOS PARA SU TUTELA.*

*5. DIFUNDIR LA DEFENSORÍA PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES, UBICACIÓN, ACCESO Y FINES EN RELACIÓN A LA DEFENSA DE LA CIUDADANÍA ANTE SITUACIONES DE DISCRIMINACIÓN POR RAZÓN DE SEXO Y PROMOCIÓN DEL CUMPLIMIENTO DEL PRINCIPIO DE IGUALDAD DE TRATO.*

*6. DESARROLLAR MECANISMOS DE COORDINACIÓN Y RELACIONES DE COLABORACIÓN.*

7. *ESTUDIAR LA LEGISLACIÓN Y JURISPRUDENCIA ANTIDISCRIMINATORIA Y ELABORAR PROPUESTAS DE LEGISLACIÓN Y REFORMA LEGISLATIVA*.

*BETETZE MAILA.*

2011. urterako programatutako helburu zehatzen harira, abian jarri ditugun jarduerak azaltzen dira laburki.

- ***EMAKUNDEREN ZUZENDARITZA KONTSEILUA***

- Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak ohiko bi batzar egin ditu, 2011ko ekainaren 10ean bata, eta abenduaren 13an bestea. Besteak beste, honako hauek onartu ditu: Emakunderen 2010eko jarduera-memoria; Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholkularitza Batzordea arautzeko eta horren funtzionamendua ezartzeko Dekretu-proposamena; “Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko zifrak-2011” txostena; eta “Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako Erakunde Laguntzailea” onartzea arautzen duen Dekretu-proposamena.

1. ***EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOEN PLANGINTZA ETA GARAPENA BULTZATZEA***.

2012. urterako jardun-planaren proposamen bat egin da Emakunderen IX. Legegintzaldirako planaren esparruan (honako dokumentu honi jarraiki: “EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana – IX. Legegintzaldiko Jarraibideak”).

Kultura Sailean, Justizia eta Herri Administrazio Sailean eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean genero-ikuspegitik begiratutako Aurrekontu-proiektua abiarazi da eta sail bakoitzari dagozkion txostenak egin dira.

*GRADO DE CUMPLIMIENTO.*

En relación con los objetivos concretos programados para el año 2011 a continuación se exponen, brevemente, las actuaciones llevadas a cabo.

- ***CONSEJO DE DIRECCIÓN DE EMAKUNDE.***

El Consejo de Dirección de Emakunde ha realizado dos sesiones ordinarias, en fechas 10 de junio y 13 de diciembre de 2011. Entre otros temas ha aprobado la memoria de actuación de Emakunde de 2010; la propuesta de Decreto de regulación y funcionamiento de la Comisión asesora de publicidad y comunicción no sexista; el Informe “Cifras sobre la situación de las mujeres y los hombres en Euskadi-2011”; y la propuesta de Decreto por el que se regula el reconocimiento de Entidad colaboradora para la igualdad de mujeres y hombres”.

- ***IMPULSAR LA PLANIFICACIÓN Y EL DESARROLLO DE POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AÚTONOMA DE EUSKADI.***

Se ha elaborado una propuesta de plan de actuación para el año 2012 en el marco del plan de Emakunde para la IX Legislatura (elaborado a la luz del “V Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAE – Directrices IX Legislatura”).

Se ha puesto en marcha el proyecto de Presupuestos desde la perspectiva de género en los departamentos de Cultura; de Justicia y Administración Pública; y de Empleo y Asuntos Sociales y se han elaborado los informes correspondientes a cada departamento.

Era berean, inpaktu-adierazleen eredu eta iturriak eta berdintasun-adierazleak identifikatzeko eta aztertzeko prozesua gauzatu da autonomia-erkidegoan, estatuan eta nazioartean, betiere emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez.

Igualmente se ha llevado a cabo un proceso de identificación y análisis de indicadores de igualdad y fuentes y modelos de indicadores de impacto, en el ámbito autonómico, estatal e internacional, relativos a la igualdad de mujeres y hombres.

EAEko adineko emakumeen ahalduntze-prozesuen eta egoeraren azterketa egin da, sektore horri zuzendutako edo sektore horretan zuzenean eragiten duten politiketan genero-ikuspegia hobeto txertatzen laguntzeko jakintza eskuratzearren.

Se ha realizado un estudio sobre la situación y los procesos de empoderamiento de las mujeres mayores en la CAE, a fin de aportar conocimiento que mejore la inclusion de la perspectiva de género en las políticas dirigidas a este sector o que tengan incidencia indirecta en el mismo.

Antzeko helburuei jarraiki, baina beste eremu batean, EAEn bizi diren emakume atzerritarren egoerari buruzko azterketa ere egin da, baita emakume horien ahalduntze-prozesuetan eta gizarteratze-prozesuetan funtsezkoak diren faktoreen (alderdi ekonomikoa, kulturari dagokiona eta abar) azterketa ere.

Con objetivos similares, si bien centrado en otro ámbito, se ha realizado asimismo un estudio de situación de las mujeres inmigrantes extranjeras en la CAE y análisis de factores clave en sus procesos de empoderamiento e integración social, aspectos económico, culturales, etc

Era berean, eta berdintasuneko programak eta politikak hobetzen laguntzearren, EAEko berdintasun-balioei buruzko azterlana egin da.

Igualmente y a fin de contribuir a la mejora de las políticas y programas de igualdad, se ha realizado un estudio sobre valores relativos a la igualdad en la CAE.

Abenduaren 28ko 348/2010 Dekretua landu, onartu eta EHAAn argitaratu da (2011ko urtarrilaren 13an); 348/2010 Dekretu hori ondoko dekretua aldatzeko da: aholkularitza-entitateen homologazioa arautzen duena, enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko.

Se ha elaborado, aprobado y publicado en BOPV (13 de enero de 2011) el Decreto 348/2010, de 28 de diciembre, de modificación del Decreto por el que se regula la homologación de entidades consultoras para la prestación de asistencia técnica en materia de igualdad de mujeres y hombres a empresas y entidades.

”Emakumeen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako Lankidetza Erakundea” izeneko figura sortzen duen azaroaren 8ko 424/1994 Dekretua aldatzeko proposamena egin da, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 41. artikuluari jarraiki eta artikulu hori garatzeko. Proposamen hori aldez aurretik onartu zen Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak 2011ko abenduaren 13an egindako saioan, eta txostenen fasean dago.

Se ha realizado una propuesta de modificación del Decreto 424/1994, de 8 de noviembre, por el que se creó la figura de “Entidad colaboradora en igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres” de conformidad y en desarrollo del artículo 41 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. La propuesta ha sido aprobada con carácter previo por el Consejo de Dirección de Emakunde en fecha 13 de diciembre de 2011 y se encuentra en fase de informes.

Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria sortu eta arautu zuen Dekretua aldatzeko den uztailaren 26ko 174/2011 Dekretua onartu eta EHAAn argitaratu da (2011ko abuztuaren 4a).

Se ha aprobado y publicado en BOPV (4 de agosto de 2011) el Decreto 174/2011, de 26 de julio, de modificación del Decreto por el que se crea y regula el Premio Emakunde a la Igualdad.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzeko Lege-aurreproiektua izapidetu da (Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Defentsa Erakundeari buruzko IV. tituluari dagokio), eta orain legebiltzarreko fasean dago.

Se ha tramitado el anteproyecto de Ley de modificación de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres (afecta al Título IV, la Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres), el cual se encuentra en fase parlamentaria.

BEGIRA/Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholkularitza Batzordea arautu eta horren funtzionamendua ezartzeko Dekretuaren proiektua izapidetzen ari da; Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak aldez aurretik onartu zuen 2011ko ekainaren 10eko saioan eta txosten-fasean dago.

Se está tramitando el proyecto de Decreto de regulación y funcionamiento de la Comisión asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación/BEGIRA, el cual fue aprobado con carácter previo por el Consejo de Dirección de Emakunde en fecha 10 de junio de 2011 y se encuentra en fase de informes.

Era berean, EAEko udalerri, mankomunitate eta koadrilei diagnostikoak egiteko eta/edo planak egin eta egokitzeko laguntza teknikoa eskuratzera bideratutako diru-laguntzen deialdia egin da; 44 eskaera aurkeztu dira eta 39 laguntza eman dira: 31 udalerri eta 5 mankomunitate.

Así mismo se ha llevado a cabo la convocatoria de subvenciones a municipios, mancomunidades y cuadrillas de la CAE destinadas a proporcionar la asistencia técnica para la realización de diagnósticos y/o elaboración y adecuación de planes habiéndose presentado 44 solicitudes y concedido 39 ayudas correspondientes a 31 municipios y 5 mancomunidades.

4/2005 Legearen 15.2 artikuluari dagokionez, Legealdiko Programa Dokumentuen edukiak V. Planean aurreikusitako jarraibide eta esku-hartze ildoen arabera egokitzeari buruzko txostena egin da (4/2005 Legearen 15.4 artikulua).

Se ha procedido a realizar el informe relativo a la adecuación de los contenidos de los Documentos Programa de Legislatura relativos al artículo 15.2 de la Ley 4/2005 a las líneas de intervención y directrices previstas en el V Plan (artículo 15.4 de la Ley 4/2005).

4/2005 Legean eta EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planean ezarritakoari jarraiki, tokiko erakundeen zazpi plani buruzko txostenak egin dira.

De conformidad con lo establecido en la Ley 4/2005 y en el V Plan para la igualdad de mujeres y hombres en la CAE, se han informado 7 planes de entidades locales.

Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langileentzako Berdintasunerako Prestakuntza Plana (2008-2018) garatuz, 2011rako planifikatutako prestakuntza-ekintzak diseinatu eta gauzatzean aholkularitza eta laguntza eman da HAEErekin eta Jaurlaritzaren sailekin batera.

En desarrollo del Plan de Formación en Igualdad 2008-2018 para el personal al servicio de la Administración General y sus organismos autónomos, se ha asesorado y colaborado con el IVAP y los distintos departamentos del Gobierno en el diseño y ejecución de las acciones formativas planificadas para el 2011.

Bestalde, hezkuntzaren alorrean politika publikoak bultzatzeari dagokionez, NAHIKO (berdintasunerako, errespeturako eta indarkeriarik ezerako) hezkidetza-programarekin jarraitu dugu Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan; EAEko 29 ikastetxe konprometitu dira eta guztira 1.084 ikasle ari dira, horien familia eta irakasleekin batera.

Por otro lado, y en relación con el impulso de políticas públicas en el ámbito educativo, se ha continuado con la tercera experiencia piloto (2010-2011 y 2011-2012) del programa coeducativo NAHIKO, programa para la igualdad, el respeto y la no-violencia centrada en el primer ciclo de Educación Primaria, con 29 centros de la CAE que reúnen un total de 1.084 alumnos y alumnas y con sus correspondientes familias y profesorado.

NAHIKO programa aurkezteko koaderno baten 4.000 ale argitaratu dira.

Se han editado 4.000 ejemplares de un cuaderno de presentación del programa NAHIKO.

NAHIKO programak lau jarduera-ardatz ditu:

- Irakasleen prestakuntza: hiru prestakuntza-mintegi egin dira ikastetxeetako eta inplikatutako berritzeguneetako irakasleentzat.
- Ikasleak sentsibilizatzea: hiru unitate didaktikoren bitartez ikasgelan egindako lanaz gain, beste bi saio berezi ere egin dira ikasleekin
- Familiak sentsibilizatzea: familiekin bi saio egin dira parte hartu duen ikastetxe bakoitzean.
- Baliabideak eta materialak prestatzea: 2011ko hiruhilekoetarako materialak egin dira.

El programa NAHIKO tiene actuaciones en cuatro ejes:

- Formación del profesorado: se han realizado tres seminarios de formación dirigidos al profesorado de los centros y berritzegunes implicados.
- Sensibilización del alumnado: además del trabajo en el aula a través de tres nuevas unidades didácticas, se han realizado dos sesiones especiales con el alumnado.
- Sensibilización de las familias: se han realizado dos sesiones con las familias en cada uno de los centros participantes
- Elaboración de recursos y materiales: se han elaborado los materiales correspondientes a los trimestres escolares del año 2011.

Proposamenak egin eta aholkuak eman dira hainbat erakunde publiko edo pribatutako plan, programa eta materialetan genero-ikuspegia txertatzeari buruz:

- Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoaren Zuzendaritzaren eta Kirol Zuzendaritzaren “Jarduera Fisikoaren Euskal Planari buruzko txostena. Ekintzarako Esparrua. 0.0 bertsioa”.
- 2011-2014 Enpleguaren Euskal Estrategiaren proiektua.
- EAEko Administrazio Orokorraren eta bere Erakunde Autonomoen Lan Arriskuak Prebenitzeko Plana.
- 2011-2013ko Immigrazio Plana.
- Irakurketa sustatzeko plana.
- III Gazte Plana 2020.
- Ijito Herriaren II. Euskal Plana.

Europar Batasunari dagokionez, Europako Batzordearen hainbat programa eta ekimenen jarraipena egin da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan. Bereziki, FSE Europako Gizarte Funtsaren eta FEDER Eskualde Garapenerako Funtsaren jarraipen-batzordeetan segitu da.

Horretaz gain, Emakunde Egiturazko Funtsen Berdintasun Politiken Sareko kide da eta sare hori FEDER eta FSE erakundeetako Kudeaketa Agintaritzak eta Emakumearen Institutuak sustatzen du; hori horrela izanik, Emakundek otsailaren 17an eta 18an izandako Egiturazko Funtsen Berdintasun Politiken Sarearen III. bileraren antolaketan parte hartu zuen. Halaber, Sarearen barruan eratutako lan-taldeetan parte hartzen jarraitu du, baita Euskadiko Programa Eragileetan garatutako Jardunbide Egokiak biltzen ere.

Egungo 2007-2013 programazio-aldian eta hurrengo 2014-2020 aldiko aurrerapenean, Lanbiderekin (FSEko Bitarteko Erakundea) eta Ekonomia Zuzendaritzarekin (FEDEReko Bitarteko Erakundea) lankidetzan hasi gara baterako lan-estrategia bat diseinatzeko; hainbat lan-saio egin dira eta erakunde laguntzaileen eta kudeatzaileen proposamenak eta emaitzak aztertu dira.

***3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOAK GARATZEKO KOORDINAZIOA BULTZATZEA.***

Se han realizado propuestas y asesoramiento sobre la incorporación de la perspectiva de género en planes, programas y materiales de distintas entidades públicas y privadas:

- “Informe sobre el Plan Vasco de Actividad Física. Marco para la Acción. Versión 0.0” de la Dirección de Salud Pública y de la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco.
- Proyecto de Estrategia Vasca de Empleo 2011-2014.
- Proyecto de Plan de Prevención de Riesgos Laborales de la Administración General y sus Organismos Autónomos.
- Plan de inmigración 2011-2013.
- Plan de fomento de la lectura.
- III Gazte Plana 2020.
- II Plan Vasco del Pueblo Gitano.

Respecto a la Unión Europea, se ha realizado el seguimiento de diferentes programas e iniciativas de la Comisión Europea en relación con la igualdad de mujeres y hombres. En particular se ha continuado en los Comités de Seguimiento del Fondo Social Europeo (FSE) y del Fondo de Desarrollo Regional (FEDER).

Además Emakunde, como institución miembro de la Red de Políticas de Igualdad en los Fondos Estructurales promovida por el Instituto de la Mujer y por las Autoridades de Gestión de FEDER y FSE, co-organizó la III reunión de la Red de Políticas de Igualdad en los Fondos Estructurales, que se llevó a cabo los días 17 y 18 de febrero. Asimismo, ha seguido participando en los grupos de trabajo constituidos en el seno de esta Red así como en la recogida de Buenas Prácticas desarrolladas en los Programas Operativos del País Vasco.

Tanto en el actual periodo de programación 2007-2013 como en anticipación del siguiente periodo 2014-2020, se ha iniciado un trabajo de colaboración con Lanbide (Organismo Intermedio del FSE) y con la Dirección de Economía (Organismo Intermedio del FEDER) para diseñar una estrategia de trabajo conjunta y se han realizado sesiones de trabajo en las que se revisaron los resultados y propuestas de las entidades colaboradoras y organismos gestores.

***3. IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLITICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.***

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail Arteko Batzordea 2011ko uztailaren 6an bildu da, Lehendakaria buru, eta honako gai hauek landu dira: 2011ko ekitaldian Sailetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako programa-dokumentuen egoera, Sailen Arteko Talde Teknikoaren lana eta generoaren araberako inpaktuari buruzko txostenen inguruko lanaren egoera. Horretaz gain, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen betetze-, garatze- eta ezartze-mailaren jarraipenari buruzko 2010eko azken txostena aurkeztu da.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail Arteko Batzorde Teknikoari laguntzeko Sailen Arteko Talde Teknikoaren lana indartu eta koordinatu da hiru bileratan; funtsean, honako hauek egin dira:

- Sailetako urteko programa-dokumentuak egiten aholkularitza ematea.

- Sailen Arteko Talde Teknikoak adostutako dokumentu bat egitea Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzeko eta biktima horiek arreta eta oneratze osoa izateko Lege Aurreproiektuari egindako ekarpenak bilduta.

Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankuari dagokionez, hasieran Sailen Arteko Talde Teknikoan landu bada ere, Estatuko berdintasunerako jardunbide egokiak jasotzeko aplikazio informatikoaren diseinua lantzen jarraitu da eta EAEko beste erakunde eta elkarte batzuekin adostasuna lortzea ahalbidetuko duen lan-prozesu bat diseinatzen ari da.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde Arteko Batzordea 2011ko maiatzaren 2an bildu zen eta honako hauek onartu ziren saio horretan: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen betetze-, garatze- eta ezartze-mailaren jarraipenari buruzko 2010eko azken txostena; berdintasunari dagokionez, tokiko erakundeei zuzendutako diru-laguntzak hobetzeko Erakunde Arteko Talde Teknikoak egindako proposamena; hiru lan-talde eratzeko proposamena, bata “hitzarmen, diru-laguntza eta kontratuetan berdintasun-neurriak aplikatzeko tresna eta irizpideei” buruz, bestea “Generoaren araberako inpaktu-ebaluazioak egin eta aplikatzeko irizpideei” buruzkoa eta hirugarrena “Hezkuntzaren eremuan berdintasunaren aldeko baterako lana egiteko neurriei” buruzkoa. Horretaz gain, Etxeko tratu txarrak jasan dituzten emakumeen alorreko harrera-baliabideen eraginkortasun- eta irismen-mailari buruzko txostenak ere aurkeztu ziren, baita 2006an emakume biktimei arreta emateko gizarte-zerbitzuetan eta programetan egindako ebaluazioaren eguneratzeari

La Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres presidida por el Lehendakari se ha reunido en 2011 en fecha 6 de julio, en donde se abordó la situación de los documento-programas para la igualdad de mujeres y hombres de los Departamentos en el ejercicio 2011, el trabajo del GTI / Grupo Técnico Interdepartamental y la situación del trabajo en torno a los informes de impacto en función del género, además de la presentación del Informe final de 2010 para el seguimiento del cumplimiento, desarrollo y aplicación de la Ley 4/2005, para la igualdad de mujeres y hombres.

Se ha impulsado y coordinado el trabajo del GTI / Grupo Técnico Interdepartamental de apoyo a la Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres a través de 3 reuniones, que han consistido básicamente en lo siguiente:

- Asesoramiento en la elaboración de los documentos programa anuales de los departamentos.

- Elaboración de un documento consensuado por el GTI / Grupo Técnico Interdepartamental que recoge las aportaciones al Anteproyecto de Ley de prevención de la violencia machista contra las mujeres y de atención y recuperación integral de sus víctimas.

En relación al Banco de Buenas Prácticas para la Igualdad que inicialmente ha sido trabajado en el GTI / Grupo Técnico Interdepartamental, se ha continuado con el diseño de una aplicación informática para recoger las buenas prácticas en igualdad a nivel estatal y se está diseñando un proceso de trabajo que permita el consenso de criterios con otras instituciones, entidades y asociaciones vascas.

La Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres se reunió en fecha 2 de mayo de 2011, sesión en la que se aprobó el Informe final de 2010 para el seguimiento, cumplimiento, desarrollo y aplicación de la Ley 4/2005, para la igualdad de mujeres y hombres; la propuesta del GTI / Grupo Técnico Interinstitucional para la mejora de las subvenciones dirigidas a entidades locales en materia de igualdad; la propuesta de constitución de tres grupos de trabajo sobre “Criterios e instrumentos para la aplicación de medidas de igualdad en convenios, subvenciones y contratos”, “Criterios para la elaboración y aplicación de las evaluaciones de impacto en función del género” y “Medidas para un trabajo conjunto en pro de la igualdad en el ámbito educativo”; además de la presentación de los Informes sobre la eficacia y el alcance de los recursos de acogida para mujeres víctimas, y sobre la actualización de la evaluación realizada en 2006 sobre los programas y servicios sociales en la atención a mujeres víctimas.

buruz ere.

Erakunde Arteko Talde Teknikoaren lana indartu eta koordinatu da bilera batean; saio horretan, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, tokiko erakundeei zuzendutako diru-laguntzak hobetzeko irizpide teknikoen proposamena onartu zen. Gainera, Erakunde Arteko Batzordeari proposamen bat egitea erabaki zen bilera horretan, honako gai hauei buruzko Lantalde Teknikoak osatzeko:

- Sektore publikoko hitzarmen, diru-laguntza eta kontratuetan berdintasun-neurriak aplikatzeko tresna eta irizpideak.

- Generoaren araberako inpaktu-ebaluazioak egin eta aplikatzeko irizpideak.

- Hezkuntzaren eremuan berdintasunaren aldeko baterako lana egiteko neurriak.

Lantalde Teknikoek lau bilera egin dituzte guztira eta lan-eremu bakoitzerako hiru dokumentu landu dira egoeraren diagnostikoa egiteko; kasuren batean, etorkizunean garatu beharreko lan-ildoak adostera ere iritsi dira.

- Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeak ohiko bi saio egin ditu, 2011ko maiatzaren 2an eta azaroaren 8an, eta ezohiko saio bat 2011ko 15ean, Emakunde buru izanik. Besteak beste, Erakundeen Arteko II. Akordioaren Jarraipen eta Ebaluazio Txostena onartu zen; Emakundek emakume biktimei harrera egiteko baliabideen eraginkortasun- eta irismen-mailari buruz eta 2006an emakume biktimei arreta emateko gizarte-zerbitzuetan eta programetan egindako ebaluazioaren eguneratzeari buruz egindako txostenak aztertu ziren; genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei buruzko 2010eko balantzeari dagokionez, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak egindako Txostena aztertu zen; 2011. urtean EAEn heriotza eragin zuten genero-indarkeriaren kasuak aztertu ziren; EAEn heriotza eragiten duten balizko indarkeria-egoeren aurrean Jarraipen Batzordearentzat lan-prozedura bat onartu zen; Erakunde Arteko Lantaldearen eta Indarkeriaren biktima diren emakumeei harrera egiteko baliabideei buruzko Lantalde espezifikoaren 2011rako lan-egutegia onartu zen.

2011ko otsailaren 25ean Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen

Se ha impulsado y coordinado el trabajo del Grupo Técnico Interinstitucional a través de una reunión en la que se aprobó una propuesta de criterios técnicos para la mejora de las subvenciones dirigidas a entidades locales en materia de igualdad de mujeres y hombres". Además en dicha reunión se acordó elevar una propuesta a la Comisión interinstitucional para la constitución de Grupos Técnicos de Trabajo (GTT) sobre:

- Criterios e instrumentos para la aplicación de medidas de igualdad en los convenios, subvenciones y en la contratación del sector público.

- Criterios para la elaboración y aplicación de las evaluaciones de impacto en función del género.

- Medidas para un trabajo conjunto en pro de la igualdad en el ámbito educativo.

En total se han realizado 4 reuniones de los GTT y se han elaborado respecto de cada uno de los ámbitos de trabajo 3 documentos en los que se realiza un diagnóstico de situación y en algún caso se llega incluso a consensuar las líneas de trabajo a desarrollar en el futuro.

La Comisión de Seguimiento del II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual, presidida por Emakunde, ha celebrado 2 reuniones ordinarias, en fechas 2 de mayo y 8 de noviembre de 2011; y 1 reunión extraordinaria en fecha 15 de julio de 2011. Entre otros temas abordados, se ha aprobado el Informe de Seguimiento y Evaluación del II Acuerdo Interinstitucional-2010; se han estudiado los informes elaborados por Emakunde sobre el alcance y la eficacia de los recursos de acogida para mujeres víctimas, y sobre la actualización de la evaluación realizada en 2006 sobre los programas y servicios sociales en la atención a mujeres víctimas; se ha estudiado el Informe elaborado por la Dirección de Atención a las Víctimas de la Violencia de Género sobre el balance de 2010 relativo a mujeres víctimas de la violencia de género; se han analizado los casos de violencia de género con resultado de muerte en la CAE sucedidos en 2011; se ha aprobado un procedimiento de trabajo de la Comisión de Seguimiento ante posibles situaciones de violencia de género con resultado de muerte en la CAE; se ha aprobado el calendario de trabajo para 2011 del GTI / Grupo de Trabajo Interinstitucional y del Grupo de Trabajo específico sobre recursos de acogida a mujeres víctimas de violencia, etc.

En fecha 25 de febrero de 2011 se ha constituido, para la IX Legislatura, el GTI / Grupo de Trabajo Interinstitucional de la Comisión de Seguimiento del II Acuerdo

Batzordearen Erakunde Arteko Lantaldea eratu da IX. Legegintzaldirako. Erakunde Arteko Lantaldeak sei bilera egin ditu: 2011ko otsailaren 25ean, apirilaren 13an, irailaren 16an, urriaren 7an, urriaren 28an eta azaroaren 30ean. Bilera horietan, urteko lan-egutegia diseinatu du eta Erakunde arteko II. Akordioan hartutako konpromisoen betetze-mailari buruzko diagnostikoa egin du, baita erakundeen esku-hartzearen egokitze-mailari buruzkoa ere, sinatutako Jardun Protokoloari dagokionez, betiere erakunde arteko koordinazioan, lankidetzan eta esku-hartzean hobetu daitezkeen alderdiak atzematearren eta Jarraipen Batzordeari helarazteko proposamen teknikoetan zehaztearren. Jarraipen Batzordean parte hartzen duten erakunde guztietako ordezkari diren teknikariek osatzen dute Erakunde Arteko Talde Teknikoa, Emakunde koordinatzaile izanik.

Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual. El GTI ha celebrado 6 reuniones en fechas 25 de febrero, 13 de abril, 16 de septiembre, 7 de octubre, 28 de octubre y 30 de noviembre de 2011, en las cuales ha diseñado su calendario de trabajo anual y ha realizado un diagnóstico sobre el grado de cumplimiento de los compromisos adquiridos en el II Acuerdo Interinstitucional y sobre el nivel de adecuación de la intervención institucional al Protocolo de actuación suscrito, con el fin de detectar aspectos susceptibles de mejora en la intervención, la cooperación y la coordinación interinstitucional que pudieran concretarse en propuestas técnicas a elevar a la Comisión de Seguimiento. El GTI, coordinado por Emakunde, está compuesto por personal técnico representante de todas las Instituciones y Entidades participantes en la Comisión de Seguimiento.

2011ko ekainaren 3an, Jarraipen Batzordearen Erakunde Arteko Lantalde bat eratu da etxeko eremuan tratu txarren biktima diren emakumeei harrera egiteko baliabideen gaia aztertzeko. Talde horrek lau lan-bilera egin zituen: ekainaren 3an, irailaren 9an, urriaren 21ean eta abenduaren 16an. 2011-2012rako honako helburu hauek finkatu dituzte: beste administrazio baten harrera-baliabideak erabiltzeko erakunde arteko lankidetzarako prozedura formala finkatzea; problematika erantsiak dituzten emakume biktimei harrera egiteko konponbidea lortzea; eta datu-bilketan, erroldan eta abarrean harrera-baliabideen anonimatua bermatzeko neurriak ezartzea. Horretarako, 2011n EAEko harrera-baliabideen *mapa* egin zuten, baliabide horien errealitatea zehatz-mehatz ezagutu ahal izateko eta, beste administrazio baten harrera-baliabideak erabiltzeko erakunde arteko lankidetzarako prozedura formalari dagokionez, azterketan aurrera egin zen. Lantaldea Emakundek koordinatzen du eta honako erakunde hauetako teknikariek osatzen dute: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila eta Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza; hiru Foru Aldundiak; Eudel; eta Abanto-Zierbena, Barakaldo, Bilbo, Donostia eta Gasteizko Udalak.

En fecha 3 de junio de 2011 se ha constituido un Grupo de Trabajo del GTI de la Comisión de Seguimiento que aborda el tema de los recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico. Dicho Grupo mantuvo 4 reuniones de trabajo, en fechas 3 de junio, 9 de septiembre, 21 de octubre y 16 de diciembre. Sus objetivos de trabajo para 2011-2012 son establecer un procedimiento formal para la colaboración interinstitucional para el uso de los recursos de acogida de otra Administración; dar respuesta a la acogida de mujeres víctimas con problemáticas añadidas; y establecer medidas que aseguren el anonimato de los recursos de acogida en la recogida de datos, empadronamiento, etc. Para ello, en 2011 realizó un *mapa* de los recursos de acogida de la CAE que pudiera permitir un conocimiento exhaustivo de la realidad de dichos recursos y ha avanzado en el análisis respecto al procedimiento formal de colaboración interinstitucional para el uso de los recursos de acogida de otra Administración. El Grupo de trabajo, coordinado por Emakunde, está compuesto por personal técnico de la Dirección de Atención a las Víctimas de la Violencia de Género y del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco; de las 3 Diputaciones Forales; de Eudel; y de los Ayuntamientos de Abanto-Zierbena, Barakaldo, Bilbao, Donostia-San Sebastián y Vitoria-Gasteiz.

**4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA BULTZATZEA.**

**4. IMPULSAR EL SEGUIMIENTO Y LA EVALUACIÓN DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.**

Emakunderen 2010eko ekitaldiko jarduera-memoria egin eta argitaratu da. Memoria Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak onartu du 2011ko ekainaren 10ean, eta Eusko Legebiltzarreko “Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasuna” Batzordean aurkeztu da 2011ko abenduaren 20an.

Se ha realizado y publicado la Memoria de la actuación de Emakunde, ejercicio 2010, la cual ha sido aprobada por el Consejo de Dirección de Emakunde el 10 de junio de 2011 y presentada en la Comisión del Parlamento Vasco “Políticas sociales, trabajo e igualdad” el 20 de diciembre de 2011.

Eusko Legebiltzarreko “Gizarte Politikak, Lana eta

Ante la misma Comisión del Parlamento Vasco “Políticas

Berdintasuna" Batzordean bertan, 2010eko abenduaren 22an Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluan onartutako "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana Botere Publikoen alorrean Gauzatzeari buruzko Jarduera-txostena – 2006/09" txostena aurkeztu da, martxoaren 21ean.

sociales, trabajo e igualdad" se ha presentado, con fecha 21 de marzo, el Informe "Memoria de actuación de los poderes públicos vascos en ejecución del IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAPV – 2006/09", aprobado por el Consejo de Dirección de Emakunde el 22 de diciembre de 2010.

Maiatzaren 2an Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Erakunde arteko Batzordean eta azaroaren 30ean Eusko Legebiltzarreko "Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasuna" Batzordean Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken ebaluazioa aurkeztu da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa betez.

Se ha presentado, el 2 de mayo, ante la Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres y el día 30 de noviembre, ante la Comisión del Parlamento Vasco "Políticas sociales, trabajo e igualdad" la evaluación final de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres, en cumplimiento de la disposición adicional primera de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres.

Berdintasun-politiken garapenean botere publikoen jarduna ebaluatzeko eta jarraipena egiteko sistema berri bat abiarazi da, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana – IX. Legegintzaldiko Jarraibideak osatzearen esparruan diseinatuta. Horretarako, administrazioek garatutako jarduerei buruzko informazioa bildu, landu eta kontsultatzeko aplikazio informatiko berezi bat sortzen amaitu eta abiarazi da. V. Planaren garapenean inplikatuta dauden erakunde guztiek 2010ean gauzatutako jardunei buruzko informazio-bilketa egin da.

Se ha puesto en marcha el nuevo sistema de seguimiento y evaluación de la actuación de los poderes públicos en desarrollo de las políticas de igualdad, diseñado en el marco de la elaboración del V Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAE-Directrices IX Legislatura. A este fin se ha finalizado y puesto en marcha la aplicación informática específica destinada a la recogida, tratamiento y consulta de información sobre las actividades desarrolladas por las diversas administraciones. Se ha procedido a la recogida de información sobre las actuaciones llevadas a cabo en 2010 por el conjunto de las instituciones implicadas en el desarrollo del v Plan.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana – IX. Legegintzaldiko Jarraibideak dokumenturako diseinatutako ebaluazio-sistemari dagokionez, hiru informazio-saio eta bi jarraipen-saio egin dira, EAEko, Foru Aldundietako eta tokiko administrazioei zuzenduta.

Se han desarrollo tres sesiones informativas y dos sesiones de seguimiento sobre el sistema de evaluación diseñado para el V Plan para la igualdad de mujeres y hombres en la CAE-Directrices IX Legislatura, dirigidas a las administraciones de la CAE, foral y local.

Hainbat administraziotako teknikariekin aholkularitza indibidualizatua egin da telefono bidez (mila dei baino gehiago), EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planaren ebaluazioari loturiko aplikazio informatikoa lortzeko eta erabiltzeko garaian eta informazioa erregistratzeko garaian.

Se ha llevado a cabo un asesoramiento individualizado a personal técnico de las diversas administraciones, a través de contacto teléfonico (más de mil llamadas) para el acceso y uso de la aplicación informática ligada a la evaluación del V Plan para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAE y el registro de información.

- EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana garatuz, Eusko Jaurlaritzaren 2011. urteko jardunari jarraipena egiteko dokumentua landu da.

Se ha elaborado el documento de seguimiento de la actuación del Gobierno Vasco en desarrollo del V Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAE, en el año 2011.

Eusko Legebiltzarreko "Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasuna" Batzordearen martxoren 21eko saioan, "EAEko Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko zifrak-2011" urteko txostena aurkeztu da.

Se ha presentado ante la Comisión parlamentaria de "Políticas sociales, Trabajo e Igualdad", en sesión de 21 de marzo, el Informe anual "Cifras sobre la situación de las mujeres y los hombres en la CAE en 2010".

"EAEko Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko zifrak-2011" urteko txostena egin da eta Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluan onartu da 2011ko abenduaren 13ko saioan.

Se ha realizado el Informe anual "Cifras sobre la situación de las mujeres y de los hombres en la CAE en 2011" el cual ha sido aprobado por el Consejo de Dirección de Emakunde en sesión de 13 de diciembre de 2011.

Zerbitzu Publikoen kalitatea hobetzeko talde batean

Se ha participado en un grupo de mejora de la calidad de

(politika publikoen ebaluazioari buruzkoa) parte hartu da, eta Emakunderen ebaluazio-esperientzia jardunbide egoki moduan aurkeztu da Estatuko konferentzia baten esparruan.

los Servicios Públicos relativo a la evaluación de políticas públicas y se ha presentado la experiencia evaluativa de Emakunde como buena práctica en el marco de una conferencia estatal.

**5. EUSKADIKO BOTERE PUBLIKOEKIKO ETA BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO LANKIDETZA SUSTATZEA.**

**5. PROMOVER LA COOPERACIÓN CON LOS PODERES PÚBLICOS Y OTRAS ENTIDADES VASCAS.**

EUSKO LEGEBILTZARRA:

PARLAMENTO VASCO:

EAEko legebiltzar-taldeek egindako legebiltzar-galderei erantzun zaie.

Se ha procedido a responder a las diferentes preguntas parlamentarias formuladas por los grupos parlamentarios vascos.

“Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasuna” Batzordean honako agerraldi hauek egin dira:

- Martxoaren 21ean: geuk eskatutako agerraldia, “Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak-2010” txostena aurkezteko.
- Martxoaren 21ean: geuk eskatutako agerraldia, “EAEn Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana gauzatzerakoan Botere Publikoen jarduerari buruzko txostena -2006/2009” aurkezteko.
- Martxoaren 21ean: geuk eskatutako agerraldia, “Erakundeen erantzuna EAEn etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen harrera-beharrei buruz. Emakumeen aurkako etxeko tratu txarren alorrean dauden baliabideen irismenaren eta eraginkortasunaren ebaluazioa” txostena aurkezteko.
- Irailaren 19an: Batzordeak eskatutako agerraldia, Eusko Alkartasuna-Talde Mistoak egindako eskaerari jarraiki, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea (IV. titulua: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea) aldatzeko proiektuarekin loturik.
- Azaroaren 30ean: geuk eskatutako agerraldia, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen betetze-, garatze- eta ezartze-mailaren jarraipenari buruzko 2010eko Azken Txostenaren berri emateko eta, hala badagokio, berriz aztertzea komeni den aztertzeko.
- Abenduaren 20an: geuk eskatutako agerraldia, Emakunderen 2010eko Jarduera Memoria aurkezteko.
- Abenduaren 20an: geuk eskatutako agerraldia,

Se han realizado las siguientes comparecencias parlamentarias ante la Comisión de “Políticas sociales, trabajo e igualdad”:

- 21 de marzo: comparecencia, a petición propia, para la presentación del Informe “Cifras sobre la situación de las mujeres y los hombres en Euskadi-2010”.
- 21 de marzo: comparecencia, a petición propia, para la presentación de la “Memoria de actuación de los poderes públicos en ejecución del IV Plan para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAPV - 2006/2009”.
- 21 de marzo: comparecencia, a petición propia, para la presentación del Informe “Respuesta institucional ante las necesidades de acogimiento de las mujeres víctimas del maltrato doméstico en la CAPV. Evaluación del alcance y la eficacia de los recursos de acogida en materia de maltrato doméstico contra las mujeres”.
- 19 de septiembre: comparecencia, a petición de la Comisión, de conformidad con la solicitud formulada por el Grupo Mixto-Eusko Elkartasuna, en relación con el proyecto de modificación de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres (Título IV: La Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres).
- 30 de noviembre: comparecencia, a petición propia, para dar cuenta del Informe final de 2010, para el seguimiento del cumplimiento, del desarrollo, de la aplicación y, en su caso, de la oportunidad de revisión de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
- 20 de diciembre: comparecencia, a petición propia, para la presentación de la Memoria de actuación de Emakunde en 2010.
- 20 de diciembre: comparecencia, a petición propia,

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen 2010eko txostena aurkezteko.

- Abenduaren 20an: geuk eskatutako agerraldia, “Erakundeek emakumeen aurkako etxeko tratu txarren aurrean gizarte-zerbitzuen bidez emandako erantzuna. Arretarako programa eta zerbitzuen irismenari eta eraginkortasunari buruzko 2006ko ebaluazioa eguneratzeko txostena” aurkezteko.

Erakunde, Herrizaingo eta Justizia Batzordean honako agerraldi hau egin da:

- Urriaren 4an: Batzordeak eskatutako agerraldia, Aralar Taldeak egindako eskaerari jarraiki, Hondarribiko Alarde Mistoaren ibilbidea aldatzeko Herrizaingo Sailak hartutako erabakiarekin loturik.

- Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordean honako agerraldi hau egin da.

- Azaroaren 7an: 2012rako aurrekontu-proiektuari buruzko agerraldian parte hartu zen Jaurlaritzako kide gehiagorekin batera.

Eusko Legebiltzarreko ordezkariekin batera, mintegi baten hasierako ekitaldian parte hartu da; "Emakumeen partaidetza erabaki- eta eragin-alorretan” izeneko mintegia Eusko Legebiltzarrak antolatu zuen ekainaren 14an, Berdintasunerako VIII. Gunearen barruan.

Lan-talde batean parte hartu da, baita Arartekoaren erakundean lantzen ari diren “e-inklusioa eta gizartearen parte-hartzea Euskadin IKTen bitartez” izeneko ezohiko txostenean genero-ikuspegia txertatzearekin loturiko hainbat zereginetan ere.

EUSKO JAURLARITZAREN SAILAK:

Jaurlaritzaren Lehendakaritzarekin aldizka bilerak egin dira, Lehendakaritzaren ohiko kudeaketarekin loturiko jardunak koordinatzeko eta bateratzeko.

Eusko Jaurlaritzaren sailekin koordinazioko eta lankidetzako lanak egin dira, Jaurlaritzaren politika publikoetan genero-ikuspegia txertatzearekin loturiko neurriak bultzatzeko.

Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin lankidetzan jardun da Sexu- eta Ugalketa-osasunaren eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduraren martxoaren 3ko 2/2010 Legeari buruzko informazio-liburuxka bat osatzeko; liburuxka horren bitartez, legearen abiapuntuko printzipioen eta lege hori betetzeko EAEn eskura dauden zerbitzu eta baliabideen berri eman nahi da.

para la presentación del Informe de la Defensoría para la Igualdad de mujeres y hombres en 2010.

- 20 de diciembre: comparecencia, a petición propia, para la presentación del Informe “Respuesta Institucional ante el Maltrato Doméstico contra las Mujeres en el ámbito de los Servicios Sociales en la CAPV. Actualización de la evaluación de 2006 sobre el alcance y la eficacia de los programas y servicios de atención”.

Se han realizado la siguiente comparecencia parlamentaria ante la Comisión de “Instituciones, Interior y Justicia”:

- 4 de octubre: comparecencia, a petición de la Comisión, de conformidad con la solicitud formulada por el Grupo Aralar, sobre la decisión del Departamento de Interior de modificar el recorrido del Alarde Mixto de Hondarribia.

- Se ha participado en la siguiente comparecencia parlamentaria ante la Comisión de “Economía, Hacienda y Presupuestos”.

- 7 de noviembre: participación, junto con otras personas miembros del Gobierno, en la comparencia relativa al proyecto de presupuesto para 2012.

Se ha participado en la apertura, junto a representantes del Parlamento Vasco, del Seminario “Participación de las mujeres en los ámbitos de decisión e influencia”, organizado el 14 de junio por el Parlamento Vasco en Bilbao, en el marco de la VIII Edición del Foro por la Igualdad.

Con motivo del proceso de reflexión abierto, en virtud del Acuerdo del Consejo de Gobierno de 9 de febrero de 2010, acerca del marco normativo que incide en la elaboración de disposiciones de carácter general de cara a una mayor transparencia, participación y agilización del procedimiento, y teniendo en cuenta la experiencia adquirida en la aplicación de las directrices, se ha elaborado una propuesta de modificación de las Directrices para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres.

Asimismo, se ha iniciado la preparación de unos materiales de apoyo para orientar y facilitar la realización de informes de impacto en función del género de acuerdo con las modificaciones propuestas a las Directrices. La elaboración de dichos materiales se está realizando en colaboración con las Unidades de Igualdad del Gobierno Vasco, en el marco de una comunidad de prácticas constituida al amparo del Plan de Innovación Pública.

Se ha seguido respondiendo a la ciudadanía, mayoritariamente a mujeres, así como a diversas administraciones públicas, sobre las cuestiones de índole social, laboral, civil, administrativa y penal.

**9. *EMAKUMEEN DESBERDINTASUN EGOERARI BURUZKO KOMUNIKAZIOA, INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA.***

***9. COMUNICACIÓN, INFORMACIÓN Y SENSIBILIZACIÓN SOBRE LA SITUACIÓN DE DESIGUALDAD DE LAS MUJERES.***

**Emakumeen eta Gizonezkoen Berdintasunerako Gunea 2011.**

- Berdintasunerako urteroko gune honek EAEn emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, bai erakunde publikoek bai talde eta erakunde pribatuek egiten dituzten sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekimenak bultzatzea eta ikusaraztea du helburu.

- Aurten, Emakundek ekainaren 1etik 21era bitarte egin du Berdintasunerako Gunea 2011. Jarduerak gai nagusi baten inguruan izan dira: "Emakumeen partaidetza erabaki eta eragin alorretan", EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren 1. ardatzaren esparruan.

- Hirurogeita bat erakundek parte hartu du: hamahiru elkarte, bederatzi udal, hamabi enpresa, zazpi fundazio, Eusko Jaurlaritzaren bost sail, lau unibertsitate edo hezkuntza-zentro, bi alderdi politiko, enpresaburuen hiru elkarte, bi foru-aldundi, bi elkargo profesional, tokiko garapen-agentzia bat, sindikatu bat eta Eusko Legebiltzarra. Guztira hirurogeita sei jarduera gauzatu dira hemezortzi udalerritan eta 4.000 lagunek parte hartu dute. Edizio honetan, parte-hartzaile kopuruari eutsi diogula nabarmendu nahi dugu; izan ere, jarduera instituzionaletan eta eskola-jardueretan parte-hartzea oso handia izan baita. Gainera, gizonen/mutilen parte-hartzearen portzentajezko hazkundea gertatu dela aipatu behar da: 2004. urtean % 5, 2009an % 14, 2010ean % 22 eta 2011n % 29ra iritsi baita. Eskola-jarduerek eta gazteen jarduerek eragin handia izan dute hazkunde horretan, baita guraso eta seme-alabentzat esanbidez antolatutako jarduerek ere.

Horretaz gain, profesionalen kolektiboak sentsibilizatu eta prestatzeko asmoz, 2011n honako jardunaldi hauek antolatu dira:

- "Emakumeen partaidetza erabaki eta eragin alorretan" titulua duen **Berdintasunerako VIII. Gunea prestatzeko mintegia**. 2011ko martxoaren 10ean egin zen mintegia Emakunderen egoitzan eta Gunean parte hartzeko interesa zuten erakunde eta elkarteei zuzenduta zegoen. Bi helburu izan zituen: alde batetik, erabaki- eta eragin-alorretan emakumeen egungo presentzia eta parte-hartzeari buruzko informazioa ezagutzera ematea eta sentsibilizatzea, baita presentzia eta parte-hartze hori eragozten duten zailtasun, mekanismo eta gizarte-erresistentziei buruz ere, eta gure

**Foro para la igualdad de mujeres y hombres 2011**.

- Este Foro anual para la igualdad tiene por objeto impulsar y visibilizar las iniciativas de sensibilización y formación en relación con la igualdad de mujeres y hombres que se realizan en la CAE, tanto desde las instituciones públicas como desde los colectivos y entidades privadas.

- Este año Emakunde puso en marcha entre los días 1 y 21 de junio el *Foro para la Igualdad 2011.* El tema central sobre el que se han desarrollado las actividades ha sido la: "Participación de las mujeres en los ámbitos de decisión e influencia", en el marco del Eje 1 del *V Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la CAPV*.

- Han participado 61 entidades: 13 asociaciones, 9 ayuntamientos, 12 empresas, 7 fundaciones, 5 departamentos de Gobierno Vasco, 4 universidades o centros educativos, 2 partidos políticos, 3 asociaciones empresariales, 2 diputaciones forales, 2 colegios profesionales, 1 agencia de desarrollo local, 1 sindicato y el Parlamento Vasco. En total se han realizado 66 actividades en 18 localidades distintas, en las que han participado en torno a 4.000 personas. Es de destacar que en esta edición se ha mantenido el número de personas participantes, lo que puede deberse a que ha habido actividades institucionales y varias actividades escolares de amplia participación. Además, es significativo el incremento porcentual de la participación de hombres/chicos, ya que se ha pasado del 5% del año 2004, al 14% del 2009, al 22% del 2010 y al 29% en 2011. Las actividades escolares y juveniles, así como las organizadas expresamente para padres e hijos han contribuido a dicho incremento.

Además, y al objeto de sensibilizar y formar a diferentes colectivos profesionales, se han organizado en 2011 las siguientes jornadas:

- **Seminario de preparación del VIII Foro para la** Igualdad con el título de "Participación de las mujeres en los ámbitos de decisión e influencia". Este seminario se celebró el día 10 de marzo de 2011 en la sede de Emakunde y estuvo dirigido a las entidades con interés por participar en el Foro. Tuvo un doble objetivo: por un lado, sensibilizar y dar a conocer información sobre la presencia y participación actual de las mujeres en diversos ámbitos de decisión e influencia; así como sobre las dificultades, mecanismos y resistencias sociales que las dificultan, y las posibles alternativas y

gizartearen erabaki- eta eragin-alorretan emakumeen parte-hartzea eta sarbidea hobetzeko dauden aukeren eta estrategien berri ematea; eta, bestetik, “EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana. IX. Legealdiko Jarraibideak” planaren I. ardatzaren inguruan, 2011ko Gunearen baitan jarduerak egiteko jarraibideak eskaintzea entitateei, eta horiei bultzada ematea.

- **“Emakume ijitoen elkarte mugimenduetan parte hartzeko erronkak. Sareko lana” jardunaldia**, Bilbon, ekainaren 9an. Emakundek Berdintasunerako VIII. Gunearen barruan antolatu zuen jardunaldi hori, emakume ijitoen elkarte hauekin batera: Chanelamos Adikerar, Sim Romí, Romí Bidean, AMUGE eta Ijito Herriaren Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoa.

- **Berdintasunerako VIII.** Gunearen **amaierako mintegia.** 2011ko uztailaren 7an egin zen mintegia Eusko Jaurlaritzaren Bilboko ordezkaritzan eta Gunean parte hartu nahi zuten erakunde eta elkarteei zuzenduta zegoen. Bi helburu izan zituen: alde batetik, Gunea ebaluatzea, bai antolaketaren alderdiei dagokienez bai edukiari dagokionez; eta, bestetik, EAEko erabaki-guneak osatzen duten instantzia sozial, ekonomiko eta politikoei dagozkien adierazle kuantitatibo nagusiak azaltzea eta horien gainean hausnartzea.

- **“Emakumeak goi mailako Kirolean” II. Jardunaldia** irailaren 30ean izan zen Donostiako Kirol Etxean (Anoeta Estadioan) eta helburu hauek izan zituen: alde batetik, egungo egoerari buruzko informazioa ematea, eta bestetik, goi-mailako kirolean dabiltzan emakumeen ibilbide eta profesionalizazio prozesuei buruz hausnartu eta eztabaidatzea.

Herritarrak eta, bereziki, emakumeak beren eskubideen gainean sentsibilizatzeko asmoz, Emakunde Abella Legal aholkularitza-erakunde homologatuarekin lankidetzan aritu da eta “Eskubideak kale gorrian” izeneko informazio-kanpaina egin du Getxon, Elorrion, Portugaleten eta Plentzian. Kanpaina horrek hiru helburu nagusi ditu: herritarrei informazioa ematea gai horrekin loturiko oinarrizko eskubideei buruz, uztarketa sustatzea eta emakumeak ahalduntzea; bereziki, indarkeria motaren bat jasaten dutenak.

Diru-laguntza izenduna eman da NAGORE filma egiteko,

estrategias para mejorar el acceso y la participación de las mujeres en los ámbitos de decisión e influencia de nuestra sociedad; y, por otro lado, animar a las entidades y ofrecerles pautas para desarrollar actuaciones en el marco del Foro 2011 en torno al Eje I del “V. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la CAPV. Directrices de la IX legislatura”.

- **Jornada “Retos para la participación en los** movimientos **asociativos de las mujeres gitanas. Trabajo en red”**, celebrada en Bilbao el 9 de junio. Esta jornada la organizó Emakunde en el marco del VIII Foro para la Igualdad en colaboración con las siguientes asociaciones de mujeres gitanas: Chanelamos Adikerar, Sim Romí, Romí Bidean, AMUGE y la Secretaría Técnica del Consejo del Pueblo Gitano.

- **Seminario de cierre del VIII. Foro para la igualdad.** Este seminario se celebró el día 7 de julio de 2011 en la delegación del Gobierno Vasco de Bilbao y estuvo dirigido a las entidades participantes en el Foro. Tuvo un doble objetivo: por un lado, evaluar el Foro tanto en cuanto a los aspectos organizativos como en cuanto al contenido; y, por otro lado, exponer y reflexionar acerca de los principales indicadores cuantitativos referidos a distintas instancias sociales, económicas y políticas que configuran los espacios de toma de decisión en la CAE.

- **II Jornada “Las mujeres en el deporte de alto nivel”** celebrada el 30 de septiembre en Kirol Etxea de Donostia-San Sebastián (*Estadio de Anoeta)*, cuyos objetivos fueron: por una parte, difundir información acerca de la situación actual; y por otra parte, reflexionar y debatir sobre los procesos de profesionalización y las trayectorias de las mujeres deportistas de alto nivel.

Además con objeto de sensibilizar a la ciudadanía y en particular a las mujeres sobre sus derechos, Emakunde ha colaborado con Abella Legal, consultora homologada en el desarrollo de la Campaña Informativa Derechos a Pie de Calle llevada a cabo por en los municipios de Getxo, Elorrio, Portugalete y Plentzia. Esta campaña tiene tres objetivos principales: informar a la ciudadanía sobre sus derechos básicos en esta materia, fomentar la conciliación y empoderar a las mujeres, muy especialmente a aquellas que sufren cualquier tipo de violencia.

Se ha concedido una subvención nominativa para la

San Fermin jaietan Nagore gaztearen heriotza eragin zuen genero-indarkeriako gertaerari buruzkoa.

CLARA CAMPOAMOR, LA MUJER OLVIDADA filmarentzat diru-laguntza eman da; Clara Campoamor andrearen bizitzari buruzkoa da eta Laura Mañá-k zuzendu du. Ekainaren 1ean, Donostiako Berdintasunerako VIII. Gunearen barruan, filma ikusteko aukera izan zen eta Miriam Porté filmaren ekoizle exekutiboak parte hartu zuen.

Ekainaren 1ean, Dora Salazarrek egindako eskultura bat inauguratu zen; Clara Campoamorren lorpenak balioesteko obra da. Eskultura hori Emakunderen ekimenez egin da eta Donostiako Clara Campoamor plazan jarri da; Berdintasunerako VIII. Gunearen barruan inauguratu zuen Emakunderen zuzendariak eta Donostiako Udaleko Hizkuntz Normalkuntza, Berdintasun eta Lankidetzako zinegotziak.

Genero-inpaktuaren ebaluazioei buruzko txostenak eta tresnak biltzen dituen mikrosite berezia elikatzen jarraitzen da.

Azaroaren 25eko kanpaina: Berdinsarearen baitan, aurten hiru Foru Aldundien, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin, hirugarren urtez jarraian, azaroaren 25eko “Beldur barik” kanpaina egin da, gazteen artean emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko. Kanpaina lehiaketa baten eta hainbat mailatako topaketen bidez garatu da. “Actitud Beldur Barik Jarrera” lehiaketaren bitartez emakumeenganako indarkeriaren kontrako jarrerak eta proposamenak bultzatu nahi izan dira. Guztira 254 lan aurkeztu dira eta horietan 297 neskak eta 119 mutilek hartu dute parte. Bestalde, lehiaketan parte hartu dutenen lana ikusarazi eta hedatzeko xedez, eta esperientziak trukatzeko, jakintzako, hausnarketako eta eztabaidako guneak sortzearren, lurralde-topaketak (Aurretopaketak) egin dira EHUko Leioako, Donostiako eta Gasteizko fakultateetan eta 430 ikaslek parte hartu dute; EAE osoko beste topaketa bat ere egin da Donostiako Emakumeen Etxean eta Kursaaleko sari-banaketan 300 bat pertsona bertaratu ziren. Horretaz guztiaz gain, sare sozialetan presentzia oso handia izan dela aipatu behar da (400 jarraitzaile Tuentin, 100 follower Twitterren eta 1.000 lagun Facebooken) eta webgunea ere oso garrantzitsua izan da ekimenaren erreferentziazko gune moduan (38.000 bisita inguru). Halaber, komunikabideetako presentzian eta, emakumeenganako indarkeriaren aurkako ikur den aldetik, puntu lilaren sendotze-prozesuan nabarmen egin da aurrera; horretarako, erakundeetara, entitate laguntzaileetara, enpresetara eta komunikabideetara

realización de la película NAGORE –suceso de violencia de género con resultado de muerte durante las fiestas de San Fermín.

Se ha subvencionado la realización de la película CLARA CAMPOAMOR, LA MUJER OLVIDADA, sobre la vida de Clara Campoamor, dirigida por Laura Mañá. Se ha realizado un visionado de la película el 1 de junio en Donostia-San Sebastián, en el marco del VIII Foro para la Igualdad, contando con la participación de Miriam Porté, productora ejecutiva de la película.

Se ha inaugurado, en fecha 1 de junio, una escultura en reconocimiento a la labor realizada por Clara Campoamor, obra de Dora Salazar. Dicha escultura, iniciativa de Emakunde, ha sido ubicada en la Plaza Clara Campoamor de Donostia-San Sebastián y fue inaugurada en el marco del VIII Foro para la Igualdad por la Directora de Emakunde y por la Concejala de Normalización Lingüística, Cooperación e Igualdad del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.

Se sigue alimentando el microsite específico que recopila herramientas e informes sobre evaluaciones de impacto de género.

Campaña 25 de Noviembre: En el marco de Berdinsarea y este año con el apoyo de las tres diputaciones forales y la colaboración del Departamento de Educación, Universidades e Investigación y la Universidad del País Vasco, se ha llevado a cabo por tercer año consecutivo la campaña del 25 de noviembre “Beldur Barik, dirigida a la prevención de la violencia contra las mujeres en la juventud. La campaña ha sido desarrollada a través de un concurso y de varios encuentros a diferentes niveles. El concurso “Actitud Beldur Barik Jarrera” ha pretendido incentivar actitudes y propuestas en contra de la violencia hacia las mujeres. En total se han presentado 254 trabajos, en los que han tomado parte 297 chicas y 119 chicos. Por otro lado, al objeto de amplificar y dar visibilidad a las personas participantes en el concurso y de generar espacios de intercambio, conocimiento, reflexión y debate, se han llevado a cabo encuentros territoriales (Aurretopaketak) celebrados en las facultades de la UPV en Leioa, Donostia-San Sebastián y Vitoria-Gasteiz donde han asistido 430 alumnos y alumnas, así como un encuentro a nivel de la CAE en la Casa de las Mujeres de Donostia-San Sebastián (Topaketa) y la entrega de premios en el Kursaal al que asistieron 300 personas. Además, cabe destacar la gran presencia que se ha tenido en las redes sociales (400 personas seguidoras en tuenti, 100 followers en twiter y 1.000 amistades en facebook) y la importancia que ha tenido la página web como espacio de referencia de la iniciativa (alrededor de 38.000 visitas). Asimismo, se ha avanzado notablemente en la presencia en los medios de

puntu lila erabiltzeko gonbidapenak bidali ziren eta erantzuna oso ona izan zen. Udaletan onartzeko erakunde-adierazpen bat proposatu dela ere esan behar da, baita indarkeria sexistaren kasuak atzemateko eta horren prebentziorako hezkuntza-kita zabaltzen jarraitu dela ere; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan, hezkuntza-kitaren eta irakasleei, zentroetako orientatzaileei eta Berritzeguneetako langileei zuzendutako kanpainaren aurkezpena dira aipagarri.

comunicación y en la consolidación del punto lila como signo de rechazo a la violencia contra las mujeres, invitando a las instituciones, entidades colaboradoras, empresas y medios de comunicación a que hicieran uso del mismo, teniendo una respuesta muy favorable. También se ha de señalar que se ha propuesto una declaración institucional para su aprobación en los plenos de los ayuntamientos y que se ha continuado difundiendo el kit educativo para la prevención y detección de casos de violencia sexista, siendo lo más destacable la presentación, en colaboración con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, del kit educativo y de la campaña al profesorado, personas orientadoras de centros y personal de los Berritzeguneak.

Kanpaina aurkezteko prentsaurrekoa egin zen eta, era berean, Emakunderen zuzendariak gaiarekin loturiko iritzi-artikulu bat argitaratu zuen EAEko egunkarietan.

La campaña se presentó en rueda de prensa y, asimismo, la directora de Emakunde publicó en los diarios de tirada en la CAE un artículo de opinión relacionado con el tema.

“Emakunde” aldizkariaren 80º., 81., 82. eta 83. zenbakiak argitaratu dira.

- 80. zenbakia - 2011ko udaberria: Romí Bidean, Emakume ezberdinen arteko elkarbizitzaren eredua.
- 81. zenbakia - 2011ko uda: Maialen Lujanbio "Kosta egiten da emakumeen lorpenak aitortzea eta txapela irabaztea, sinbolikoki, pauso bat da”.
- 82. zenbakia - 2011ko udazkena: SOS Bebés robados Euskadi. Egia ezkutatzeak nori ekartzen dio onura?.
- 83. zenbakia - 2011ko negua: Araski: "Emakumeen saskibaloiaren erreferente izan nahi dugu".

eta aldizkariaren informazioa etengabe eguneratu da, 2010. urtean aldizkari digital bihurtu zenetik.

Se han editado los números 80, 81, 82 y 83 de la Revista “Emakunde”

- Nº 80. Primavera - 2011: Romí Bidean, un ejemplo de convivencia entre gitanas y payas.
- Nº 81. Verano - 2011: Maialen Lujanbio "Cuesta reconocer lo que hacen las mujeres y ganar el campeonato, simbolicamente, es un paso".
- Nº 82. Otoño - 2011: SOS Bebés robados Euskadi. ¿A quien beneficia ocultar la verdad?.
- Nº 83. Invierno - 2011: Araski: "Queremos ser un referente en el baloncesto femenino".

y se ha actualizado constantemente la información de la revista, una vez que en 2010 pasó a convertirse en revista digital.

“Newsletter” buletin elektronikoa egin da, baita aldizkariaren laburpen bat –paperean- ere, emakume-elkarte, liburutegi eta dokumentazio-zentroentzat, batez ere.

Se ha realizado un boletín electrónico “newsletter” y un resumen de la revista en soporte papel dirigido fundamentalmente a asociaciones de mujeres, bibliotecas y centros de documentación.

Sare sozialetan etengabe eguneratzeak sartu dira berdintasun-arloko gaurkotasuneko gaiekin loturik; izan ere, Emakundek Facebooken eta Twitteren kontu bana ditu.

Se han introducido actualizaciones constantes relativas a la actualidad en materia de igualdad en redes sociales, contando Emakunde con una cuenta en Facebook y otra en Twitter.

Berdintasunaren aldeko 2010eko Emakunde Saria banatu da eta Teresa del Valle Murga katedradunari eman zaio, Sariaren Epaimahaiak 2010eko abenduaren 22ko bilkuran hartutako erabakiaren arabera. Sari-banaketa Emakunde Gauaren testuinguruan egin zen. Ekitaldian, Idoia Mendia

Se ha entregado el Premio Emakunde a la Igualdad, edición 2010 (La Alhóndiga, Bilbao, 13 de abril) a la catedrática Teresa del Valle Murga, según el fallo del Jurado del Premio, reunido el 22 de diciembre de 2010. La entrega del Premio se produjo en el contexto de

Eusko Jaurlaritzaren lehendakariordea eta Maria Silvestre Emakunderen zuzendaria izan ziren buru eta Emakundek 2010. urtean egindako lanaren errepasoa egin zuten, etorkizuneko erronkak ere aipatu ziren eta, amaitzeko, Berdintasunaren aldeko 2010eko Emakunde Saria Teresa del Valle Murga katedradunari eman zitzaion.

Emakunde Gaua. El objetivo del acto, que fue presidido por la Vicelehendakari del Gobierno Vasco Idoia Mendia, y la directora de Emakunde, María Silvestre, fue el de realizar un repaso del trabajo realizado por Emakunde en 2010, apuntar los restos del futuro y proceder a la entrega del Premio Emakunde a la Igualdad a la catedrática Teresa del Valle Murga.

Berdintasunaren aldeko 2011ko Emakunde Saria deitu da, eta Irungo San Martzial Alarde Parekidearen eta Hondarribiko Jaizkibel Konpainiaren ordezkari den Asociación Alarde Publikoaren Alde “Alardezaleak” elkarteari eman zaio, Sariaren Epaimahaiak 2011ko abenduaren 13ko bilkuran hartutako erabakiaren arabera.

Se ha convocado el Premio Emakunde a la Igualdad, edición 2011, y se ha otorgado al Alarde Igualitario de San Marcial de Irun y a la Compañía Jaizkibel de Hondarribia representadas por la Asociación Alarde Publikoaren Alde “Alardezaleak” elkartea, según el fallo del Jurado del Premio, reunido el 13 de diciembre de 2011.

2011. urtean, Emakumeen Nazioarteko Egunaren (Martxoaren 8ko) Kanpaina egin da eta gure gizartearen erabaki-alor guztietan emakumeen presentzia bultzatzeko premia izan du ardatz. Kanpainaren leloa “Emakumeak aurrera” izan da eta gure gizartean, udaletan, aldundietan, gobernuetan, unibertsitateetan, sindikatuetan edo patronaletan emakume gehiago behar direla esan nahi du. Kanpaina horren bitartez, Emakundek zera nabarmendu nahi izan zuen, azken hamarkadatan gure gizartean asko aurreratu dela emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, baina hala ere, datuei erreparatuta, desorekak oso handiak direla oraindik eskubideen, boterearen, baliabideen eta onuren sarbidean, baliatzean eta kontrol eraginkorrean. Eta horretarako, emakumeek gure gizartearen eremu guztietan (gizartean, kulturan, ekonomian, politikan...) erabakiak hartzeko eta parte hartzeko guneetarako duten sarbidea hobetu eta modu aktiboan bultzatu behar dela. Kanpainan kanpo-publizitatea jarri zen autobus-geltokietako markesinetan, Euskotrenen eta Metroan. Bestalde, bost mila bat kartel banatu ziren erakunde publikoetan, elkarteetan, ikastetxeetan, sindikatuetan, kultura-etxeetan, osasun-zentroetan, komunikabideetan eta gainerako entitate eta agente sozialen artean. Kanpainaren irudia aldizkarietan eta webguneetan argitaratu zen eta hainbat irrati-etxetan ere iragarkiak jarri ziren.

Se ha realizado la Campaña 8 de Marzo / Día Internacional de las Mujeres, edición 2011, centrada en la necesidad de impulsar la presencia de las mujeres en los distintos ámbitos de decisión de nuestra sociedad. El lema de la campaña fue “Mujeres al frente” y hacía referencia a que esta sociedad necesita más mujeres al frente de ayuntamientos, diputaciones, gobiernos, universidades, empresas, sindicatos o patronales. Con esta campaña Emakunde quiso destacar que a pesar de que la sociedad ha dado grandes pasos en igualdad de mujeres y hombres en las últimas décadas, los datos siguen poniendo de manifiesto que se mantienen importantes desigualdades en términos de acceso, ejercicio y control efectivo de derechos, poder, recursos y beneficios por parte de unas y otros. Y que para ello es necesario mejorar y apoyar activamente el acceso de las mujeres a la participación y a la toma de decisiones en los ámbitos sociocultural, político, económico etc, de nuestra sociedad. La campaña contó con publicidad exterior en marquesinas de paradas de autobuses, Euskotren y Metro. Por otro lado, se distribuyeron alrededor de cinco mil carteles entre distintas instituciones públicas, asociaciones, centros educativos, sindicatos, casas de cultura, centros sanitarios, medios de comunicación y demás entidades y agentes sociales. La imagen de la campaña se publicó en distintas revistas, páginas web y se insertaron cuñas de radio en distintas emisoras.

Saharako Emakumeen Batasun Nazionalari (UNMS) Laguntzeko Euskal Sarearen bileretara joaten eta sareari laguntzen jarraitzen da eta, elkarte-mugimendutik sustatuta, UNMS elkartearen esparruan Saharako emakumeek egiten dituzten ekimenak eta lana bultzatzen dira.

Se continua participando en las reuniones y apoyando a la Red Vasca de Apoyo a la Unión Nacional de Mujeres Saharahuis (UNMS**)** que, promovida desde el movimiento asociativo, acompaña el trabajo y las iniciativas que realizan las mujeres saharauis en el marco de la UNMS.

Martxoaren 13an, Donostian Lilaton Elkarteak antolatzen duen Lilaton Emakumeen Lasterketa Herrikoiaren 22. edizioan parte hartu da.

El 13 de marzo se ha participado en la 22ª edición de Lilaton / Carrera popular de mujeres celebrada en Donostia-San Sebastián y organizada por la Asociación Lilaton.

Martxoaren 29an, Deustuko Unibertsitateak Bilbon antolatu zuen VII. Enplegu Foroaren barruan, “Lana eta familia uztartzea: egungo egoera eta etorkizuneko erronkak” gaiari buruzko mahai-inguruan parte hartu da.

El 29 de marzo se ha participado en una mesa redonda sobre “Conciliación de la vida familiar y laboral: situación actual y retos de futuro”, organizada por el VII Foro de Empleo Deusto y celebrada en Bilbao.

Martxoaren 31n Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak ematen dituen enpresen arloko sarien V. edizioaren sari-banaketan parte hartu zen, Bilbon.

El 31 de marzo se ha participado en la entrega de la V Edición de los Premios Empresariales concedidos por la Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia / AED, celebrada en Bilbao.

Apirilaren 7an, Eragin Elkarteak antolatuta, “Emakumeen eta gizonen egoera Euskadin. Berdintasuna, gainditzeke erronka” hitzaldia eman da.

El 7 de abril se ha impartido la conferencia “La situación de mujeres y hombres en Euskadi: un tema pendiente”, organizada en Donostia-San Sebastián por la Asociación Eragin.

Apirilaren 12an, Lankidetzarako Euskal Agentziaren zuzendariarekin batera, Hezkuntzaren aldeko Mundu Ekintzaren astea aurkeztu da; EAEko hainbat GKEk sustatutako ekimena da, Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainaren barruan.

El 12 de abril, se ha presentado, junto con la Directora de la Agencia Vasca de Cooperación, de la Semana de Acción Mundial por la Educación, iniciativa promovida por representantes de varias ONGs vascas y enmarcada dentro de la Campaña Mundial por la Educación-CME.

Apirilaren 12an, Etxeko Andre elkartearen 40. urteurrenaren Biltzarrean parte hartu da, Bilbon.

El 12 de abril se ha participado en el Congreso 40º Aniversario de la Asociación Etxeko Andre, celebrado en Bilbao.

Apirilaren 27an, “Forum Europa Tribuna Libre” Tribunaren Informazio-gosarian parte hartu da; Bilbon izan zen eta Nueva Economía Forum zen antolatzailea.

El 27 de abril se ha participado en el Desayuno informativo de la Tribuna “Forum Europa Tribuna Libre”, celebrado en Bilbao y organizado por Nueva Economía Forum.

Maiatzaren 11n, EHUren Bilboko Kazetaritza Fakultatean izandako “Idazmahaietatik erredakzioetara: kazetari-belaunaldi berri bat trebatzen” jardunaldian parte hartu da.

El 11 de mayo se ha participado en la jornada “De los pupitres a las redacciones: formando a una nueva generación de periodistas”, celebrada en la Facultad de Periodismo de la UPV/EHU en Bilbao.

“Desberdintasun ikusezinak: generoa, drogak eta politika publikoak. Genero-ikuspegia Europako droga-politiketan” izeneko tailerrean parte hartu da Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea. Maiatzak 12-13. Oñati.

Se ha participado en el Workshop Diferencias Invisibles: Género, drogas y políticas públicas. El enfoque de género en las políticas europeas de drogas. Instituto Internacional de Sociología Jurídica de Oñati. 12-13 de mayo. Oñati.

Maiatzaren 18an, Arantxa Iurreren “Emakumea arte eszenikoetan Euskadin” liburua aurkeztu da. Emakunde laguntzaile izan du idazleak. Aurkezpena Emakunderen egoitzan izan zen.

El 18 de mayo se ha presentando el libro “La mujer en las artes escénicas en Euskadi” de Arantxa Iurre, con la colaboración de Emakunde. La presentación tuvo lugar en la sede de Emakunde.

Maiatzaren 20an eta 21ean, EHUren Emakume eta gizonen berdintasunaren gaineko Masterraren “Mugimendu Feminista, Emakume Taldeak eta Berdintasunerako Erakundeak: Elkarrizketarako Bide Berriak?” II. Jardunaldietan parte hartu da, honako ponentzia hauekin: “Administrazio publikoen rola solasaldietan”, “Berdintasun-eragileen rola solasaldietan” eta “Solasaldiak hobetzeko bateratze-lana”.

Los días 20 y 21 de mayo se ha participado en las II Jornadas del Máster en Igualdad de Mujeres y Hombres de la UPV/EHU: “Movimiento Feminista, Grupos de Mujeres y Organismos de Igualdad: ¿nuevas vías de interlocución?”, con las ponencias “El papel de las administraciones públicas vascas en la interlocución”, “El papel de las agentes de igualdad en la interlocución” y “Puesta en común para una mejor interlocución”.

Ekainaren 1ean, Berdintasunerako VIII. Gunearen inguruan Vitoria-Gasteizko Erizaintza Sindikatuak antolatutako "Emakumeen parte-hartze orekatua erizaintzaren erabaki eta eragin arloetan" mintegian parte hartu da.

El 1 de junio se ha asistido al Seminario "Participación equilibrada de las enfermeras en los ámbitos de decisión de influencia" que en torno al VIII Foro para la Igualdad fue organizado por el Sindicato de Enfermería en Vitoria-Gasteiz.

Ekainaren 2an, Gasteizen EHUko Irakasle Eskolak antolatutako "Emakumeen presentzia desorekatua Hezkuntza Sisteman" mintegian parte hartu da, Berdintasunerako VIII. Gunearen barruan.

El 2 de junio se ha asistido al seminario "Presencia desequilibrada de mujeres en el sistema educativo", organizado en Vitoria-Gasteiz por la Escuela de Magisterio de la UPV/EHU, en el marco del VIII Foro para la Igualdad.

Ekainaren 2an, Bilbon Bilbao Metrópoli-30-ek antolatutako "Emakumeen parte-hartzea arlo sozio-politikoan, unibertsitatean eta enpresa munduan" mintegian parte hartu da, Berdintasunerako VIII. Gunearen barruan.

El 2 de junio se ha asistido al seminario "Participación de la mujer en los ámbitos sociopolítico, universitario y empresarial", organizado en Bilbao por Bilbao Metrópoli-30, en el marco del VIII Foro para la Igualdad.

Ekainaren 2an, Bilbon Bagabiltza Fundazioak antolatutako "Emakumeen partaidetza soziopolitikorantz bide nekeza" mintegian parte hartu da, Berdintasunerako VIII. Gunearen barruan.

El 2 de junio se ha asistido al seminario "El arduo camino hacia la participación sociopolítica de las mujeres", organizo en Bilbao por la Fundación Bagabiltza, en el marco del VIII Foro para la Igualdad.

Ekainaren 4an, "Parte-hartze politikoa eta Emakumeak" Uribe Kostako Emakumeen III. Topaketaren inaugurazioan parte hartu da; Uribe-Kostako Emakumeen Kontseiluak antolatu zuen Urdulizen, Berdintasunerako VIII. Gunearen barruan.

El 4 de junio se ha participado en la inauguración del III Encuentro de Mujeres de Uribe-Kosta "Participación política y Mujeres", organizado por el Consejo de Mujeres de Uribe-Kosta en Urduliz, en el marco del VIII Foro para la Igualdad.

Ekainaren 7an, Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateak Bilbon antolatutako "Emakumeen autonomia eta partaidetza sozialaren inguruko hausnarketa Deustu Unibertsitatetik" mintegian parte hartu da, Berdintasunerako VIII. Gunearen barruan.

El 7 de junio se ha participado en el seminario "Reflexionando sobre la autonomía y la participación social de las mujeres desde la Universidad de Deusto", organizado en Bilbao por la Facultad de Ciencias Sociales y Humanas de la Universidad de Deusto, en el marco del VIII Foro para la Igualdad.

Ekainaren 7an, Aizan Elkarteak Gasteizen antolatutako "Parte hartzen al dute emakumeek erabaki eta eragin alorretan?" World kafean parte hartu da, Berdintasunerako VIII. Gunearen barruan.

El 7 de junio se ha asistido al World café "¿Participan las mujeres en los ámbitos de decisión e influencia?" organizado por la Asociación Aizan en Vitoria-Gasteiz, en el marco del VIII Foro para la Igualdad.

Ekainaren 15ean, Félix Baltistan Fundazioak Bilbon antolatutako "Emakumeen partaidetza Hushe-ko haranean (Pakistan)" mintegian parte hartu da, Berdintasunerako VIII. Gunearen barruan.

El 15 de junio se ha asistido al seminario "La participación de las mujeres en el Valle de Hushé (Pakistán), organizado en Bilbao por la Fundación Félix Baltistan en el marco del VIII Foro para la Igualdad.

Ekainaren 16an, Plazandreok Plataformak Donostian antolatutako "2011ko Hauteskundeak. Emakumeak kargu publikoetan eta berdintasunerako politiken garapenean duen eragina" mahai-inguruan parte hartu da.

El 16 de junio se ha participado en la mesa redonda "Elecciones 2011. Mujeres en cargos públicos y su repercusión en el desarrollo de las políticas de igualdad", organizada en Donostia-San Sebastián por la Plataforma Plazandreok.

Ekainaren 20an, Bilbon EDE Fundazioak antolatutako "Bizkaiko hirugarren sektoreko zuzendaritza-emakumeen

El 20 de junio se ha asistido al seminario "Encuentro de mujeres directivas del tercer sector de Bizkaia",

topaketa" mintegian parte hartu da, Berdintasunerako VIII. Gunearen barruan.

organizado en Bilbao por la Fundación EDE en el marco del VIII Foro para la Igualdad.

Ekainaren 30ean, Irungo Alarde Mistoan parte hartu da.

El 30 de junio se ha participado en el Alarde Mixto de Irun.

Irailaren 8an, Hondarribiko Alarde Mistoan parte hartu da.

El 8 de septiembre se ha participado en el Alarde Mixto de Hondarribia.

Irailaren 27an, ADP/Asociación Para el Progreso de la Dirección elkarteak eta EHUk antolatutako "Emakumea eta buruzagitza: antolamendu eraginkor eta lehiakorrago baterantz" jardunaldiaren irekieran parte hartu da.

El 27 de septiembre se realizó la apertura de la Jornada "Mujer y liderazgo. Hacia una organización más eficiente y competitiva", organizada en Bilbao por ADP/Asociación para el progreso de la dirección y la UPV/EHU.

KCD GKEak antolatzen duen Zinema Ikusezina Jaialdian laguntzaile izan da; hain zuzen ere, kulturartekotasunaren kategorian eta emakume batek egindako lanik onenaren kategorian epaimahaian parte hartu dugu eta emakume batek egindako lanik onenaren saria eman dugu (urriak 4).

Se ha colaborado con en el Festival de Cine Invisible organizado por la ONG KCD, a través de la participación como jurado en las categorías de interculturalidad y mejor obra realizada por una mujer, y en la concesión del premio a la mejor obra realizada por una mujer (4 de octubre).

Urriaren 5ean, Dato Económico aldizkariak Bilbon antolatutako "Berdintasuna Euskadiko erakundeetan" eztabaidan parte hartu da.

El 5 de octubre se ha participado en el debate "La igualdad en las organizaciones de Euskadi", organizado en Bilbao por Dato Económico.

Urriaren 28an, Arabako Ihesaren aurkako batzordeak eta ESK sindikatuak Gasteizen antolatutako "Prostituzioa eztabaidagai" jardunaldien barruan, "Politika publikoak Euskadin" mahai-inguruan parte hartu da.

El 28 de octubre se ha participado en la mesa redonda "Las políticas públicas en Euskadi" en las Jornadas "La Prostitución a debate", organizadas en Vitoria-Gasteiz por la Comisión Ciudadana Anti-Sida de Álava y el Sindicato ESK.

Azaroak 7-9. Zuzenak Fundazioak Gasteizen antolatutako "Genero-indarkeria ezintasun funtzionala duten pertsonengan. Ikusezin denari begiratzea" jardunaldien amaiera-ekitaldian parte hartu da.

7-9 de noviembre. Participación en la clausura de las Jornadas "Violencia de género en personas con discapacidad funcional. Una mirada a lo invisible" organizadas por la Fundación Zuzenak en Vitoria-Gasteiz.

Lan harremanetan berdintasuna eta bereizketarik ezari buruzko jardunaldietan parte hartu da. UPV/EHU. Azaroak 3. Leioa.

Se ha participado en la jornada sobre Igualdad y no discriminación en las Relaciones Laborales. UPV/EHU.3 de noviembre. Leioa.

Azaroak 11. XVII. Kalitate eta Bikaintasunaren Europar Astearen barnean, Emakundek Bilbon antolatutako "Berdintasuna eta enpresak. Aldaketarako tresnak" Jardunaldiaren inaugurazioa.

11 de noviembre. Inauguración de la Jornada "Igualdad y empresa. Herramientas para el cambio", organizada por Emakunde en Bilbao en el marco de la XVI Semana Europea de la Calidad y la Excelencia.

Azaroak 15-16 . Donostian izandako "Enpresen ordua" Espainiako Ordutegiak Arrazionalizatzeko VI. Biltzar Nazionalean parte hartu eta testigantza bat irakurri da.

15-16 de noviembre. Asistencia al VI Congreso Nacional para la racionalización de los horarios españoles "La hora de las empresas" celebrado en Donostia-San Sebastián y lectura de un testimonio.

Azaroak 24. Aspasia Emakumeen Elkarteak Bilbon antolatutako Emakumea eta Kirola I. Jardunaldiaren inaugurazioan parte hartu da.

24 de noviembre. Participación en la inauguración de la I Jornada que sobre mujer y deporte que se celebró en Bilbao organizada por la Asociación de Mujeres Aspasia.

Las Murallas Harresiak emakume-elkarteak Emakunderen laguntzarekin antolatu duen Biasteri 2011 XIV. Literatura Lehiaketaren (leloa: “Emakumeak eta heziketa”) sari-banaketan parte hartu da.

Se ha participado en la entrega de premios del “XIV Concurso Literario Laguardia 2011” con el lema: las mujeres y la educación”, organizado por la Asociación de mujeres “Las Murallas Harresiak” y apoyado por Emakunde

**10. BERDINTASUNAREN ALDE ETA EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKA GIZONAK INPLIKATU DAITEZEN SUSTATZEA.**

**10. PROMOVER LA IMPLICACIÓN DE LOS HOMBRES A FAVOR DE LA IGUALDAD Y EN CONTRA DE LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES.**

Eusko Jaurlaritzaren web-orrian Gizonduz-en webgune espezifikoa (www.euskadi.net/gizonduz) administratu da. Bertan, blog bat eta ekimenari buruzko informazioa dago hainbat euskarritan, baita elkarrizketak, dokumentazioa, bibliografia, webguneetarako loturak eta abar ere.

Se ha administrado un espacio web específico para *Gizonduz* en la página web del Gobierno vasco (www.euskadi.net/gizonduz), que dispone de un blog y de amplia información relativa a la iniciativa en diferentes soportes, así como secciones con entrevistas, documentación, bibliografía, enlaces a web de interés, etc.

Sare sozialetan ere egon gara. Facebooken Gizonduz-en erakunde-orria sortu da, lehendik zeukan profiletik edukiak migratzeko prozesua gauzatu ostean. Aldizka, webgune hori eta Gizonduz-ek You Tuben duen profila administratu eta eguneratu dira. Bestalde, Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzak eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritzak antolatuta, Eusko Jaurlaritzaren gizarte-sareetako erabileren eta estiloaren gida aurkezteko ekitaldira gonbidatu zen Emakunde, Gizonduz-en barruan eremu horretan egindako lana aditzera emateko. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak Facebooken dituen orrietatik, Gizonduz-enak izan ditu lagun gehien 2011n: guztira, 4.585 lagun.

Se ha estado presente en las redes sociales. Se ha creado una página institucional de Gizonduz en Facebook, tras haber llevado a cabo un proceso de migración de contenidos desde el perfil con el que ya se contaba. Periódicamente, se ha administrado y actualizado tanto dichaa página como el perfil que Gizonduz dispone en You tube. También cabe destacar que se invitó a Emakunde a participar en el acto de presentación de la Guía de Usos y Estilo en las Redes Sociales del Gobierno Vasco, organizado por la Dirección de Gobierno Abierto y Comunicación en Internet y la Dirección de Atención Ciudadana, con el fin dar a conocer el trabajo realizado en este campo en el marco de Gizonduz. De hecho, la de Gizonduz ha sido la página del Gobierno Vasco en Facebook que en 2011 ha contado con mayor número de amistades, un total de 4.585.

Gizonduz ekimenaren barruan, Osakidetzako emaginen eta adopzio-arloko erakunde eskudunen bitartez, aita izango diren gizonei motxila bana banatzen jarraitu da, sentsibilizazioko materialez betetako motxila bat, zaintzarekin eta aitatasunarekin loturiko gaiei buruzko jarraibideak eskaintzeko, baita balio ez-sexisten transmisioan aitaren figurak duen eraginari buruz hausnartzeko gakoak ere. 2011. urtean 2.000 motxila inguru banatu dira.

En el marco de la iniciativa Gizonduz, se ha continuado distribuyendo a los hombres que van a ser padres, a través de los y las matronas de Osakidetza y de los órganos competentes en materia de adopción, una mochila compuesta por un conjunto de materiales de sensibilización pensados para dar pautas sobre cuestiones relacionadas con el cuidado y la paternidad, así como a aportar claves para reflexionar sobre la influencia de la figura paterna en la transmisión de valores no sexistas. mujeres. En 2011 se han distribuido alrededor 2.000 mochilas.

Gizonduz ekimenaren 2011ko Sentsibilizazioko eta prestakuntzako programa gauzatu da. Hainbat ikastarok osatzen dute, aurrez aurrekoak eta internet bidez egitekoak, doan; eskaintza oso handia eta askotarikoa da eta malgutasun eta egokitze handikoak dira. Bi ikastaro mota daude: programatutakoak, hau da, ikastaroaren alderdi garrantzitsuenak (edukiak, ezaugarriak, egutegia,

Se llevado a cabo el Programa de sensibilización y formación correspondiente a 2011 de la iniciativa Gizonduz. Se trata de un conjunto de cursos, tanto presenciales como por internet, que se caracterizan por su gratuidad, su amplía y variada oferta y por su adaptabilidad y flexibilidad. Existen dos tipos de cursos, los programados, aquellos en los que están

tokia eta hizkuntza...) aldez aurretik zehaztuta daudenak; eta programatu gabeak edo eskaeraren arabera "neurrira egindakoak", bai luzapenari eta edukiei dagokienez, bai tokiari eta hartzaileei dagokienez. Ikastaro horietan, gizonekin, berdintasunarekin, maskulinitateekin eta bestelako gai oso ezberdinekin loturiko gaiak jorratzen dira, hala nola, osasuna, aitatasuna, sexualitatea, bide-segurtasuna, toxikomanien edo kriminalitatearen prebentzioa eta abar. 2011n, bi ikastaro eman ziren on-line: bata zortzi ordukoa eta bestea hirurogei ordukoa; aldiz, aurrez aurreko ikastaroak 70 izan dira eta guztira 821 gizonek eta 638 emakumek parte hartu dute.

"Gazteak Berdintasunean 2.0" proiektuaren alderdi teknikoak diseinatu eta definitu dira, EJIE, SA. sozietate publikoarekin lankidetzan. Proiektu horren bitartez nerabe eta gazteen eta, bereziki, gizonen kontzientziazioa eta inplikazioa bultzatu nahi da, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra; horretarako, hezkuntza-tresna berritzaileak erabiltzen dira, teknologia berrietan oinarrituta.

Berdintasunari buruzko unibertsitateko master eta graduondokoen eta HAEEko ikastaroen berri eman da, baita Berdintasunerako Gunearen berri ere, buletin elektronikoaren bitartez eta Gizonduz-en webgunearen bitartez. Betiere, gizonek prestakuntzako eta sentsibilizazioko jarduera horietan parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatzeko.

Honako dokumentu hauek egin eta argitaratu dira formatu elektronikoan:

- "Gizonduz ekimenaren 2007-2010 aldiko jarduera-memoria"; Gizonduz ekimena abiatu zenetik garatutako jarduera guztiak aztertzen dira zehatz-mehatz, baita neurrien eta helburuen betetze-maila ere.

- "Gizonak eta maskulinitateak: jakintza alor anitzeko azterketa"; ikuspegi pertsonaletik nahiz profesionaletik begiratuta, gizonekin, berdintasunekin eta maskulinitateekin loturiko gaiak jorratzen dira, besteak beste: osasuna, zaintza, giza eskubideak, indarkeria maskulinoak, emakumeen aurkako indarkeria, bide-segurtasuna, toxikomanien eta kriminaltasunaren prebentzioa.

predeterminados de antemano los aspectos principales del curso (contenidos, características, calendario, lugar e idioma de realización, etc.); y los no programados o "a la carta", que se realizan a la medida de la demanda, tanto en cuanto a la extensión y los contenidos, como por lo que respecta al lugar de realización y a las personas destinatarias. En los cursos se abordan cuestiones relacionadas con los hombres, la igualdad, las masculinidades y materias tan dispares como la salud, el cuidado, la paternidad, la sexualidad, la seguridad vial, la prevención de las toxicomanías, de la criminalidad, etc. Durante 2011, además de 2 cursos on-line (uno de 8 y otro de 60 horas), se han impartido 70 cursos presenciales en los que han participado 821 hombres y 638 mujeres.

Se han diseñado y definido los aspectos técnicos del proyecto "Gazteak Berdintasunean 2.0", en colaboración con la sociedad pública EJIE, SA. Este proyecto pretende promover la concienciación e implicación de las personas adolescentes y jóvenes, y en particular de los hombres, a favor de la igualdad de mujeres y hombres y contra la violencia hacia las mujeres, mediante la utilización de herramientas educativas innovadoras basadas en las nuevas tecnologías.

Se ha dado difusión de los másteres y postgrados universitarios y cursos del IVAP específicos sobre igualdad, así como del Foro para la Igualdad, a través del boletín electrónico y del espacio web de Gizonduz.Todo ello con el fin de favorecer una mayor participación de los hombres en las referidas actividades formativas y de sensibilización.

Se han elaborado y publicado en formato electrónico los siguiente documentos:

- La "Memoria de actuación de la iniciativa Gizonduz correspondiente al período 2007-2010", en la que se hace un exhaustivo repaso de las actuaciones desarrolladas en el marco de Gizonduz desde su puesta en marcha, así como del grado de cumplimiento de sus medidas y objetivos.

- La publicación de "Masculinidades e igualdad: estudio multidisciplinar", dirigida a todas aquellas personas que, tanto desde una perspectiva personal como profesional, quieran profundizar en cuestiones relacionadas con los hombres, la igualdad y las masculinidades y materias tan dispares como la salud, el cuidado, los derechos humanos, las violencias masculinas, la violencia contra las mujeres, la seguridad vial o la prevención de las toxicomanías y de la criminalidad.

Era berean, Gizonduz ekimena ezagutzera ematearren, Emakundek hainbat komunikabidetan (prentsan, irratian…) esku-hartzeak egin ditu. Gainera, administrazio publikoek, unibertsitateek, elkarteek eta EAEko nahiz Estatu osoko beste entitate batzuek eskatuta, konferentziak eta ponentziak eman dira. Horien artean honako hauek dira aipagarriak:.

- Homes Igualitaris-Ahige Catalunya elkarteak Bartzelonan antolatutako “Maskulinitateari eta ekitateari buruzko Iberoamerikako kongresua” biltzarreko entitateen foroaren antolaketan eta parte-hartzean laguntzea.

